

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2014

INGURUMENA ETA LURRALDE POLITIKA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako diru-laguntzak emateko deialdia, Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko.
2. Informazio geografikoa hobetzeko eta udal-mapak egiteko diru-laguntzak ematea.
3. Salgaien garraio publikoaren sektorean lanbidea uzteagatiko laguntzak.
4. Salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAEko garraio publikoan teknologia berrietarako eta segurtasunerako sistemak ezartzeko laguntzak.
5. Salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAEko garraio publikoaren sektorean kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntzak.
6. Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei diru-laguntzak, 2014.
7. Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, tokiko erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak.
8. Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak.
9. Ingurumen-boluntaritzako proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak.
10. Natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduerak –EAEren lurralde-eremuko lur-zaintzako akordioetan sartuta daudenak– finantzatzeko 2014. urteko diru-laguntzak.
11. Natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako 2014. urteko diru-laguntzak.

1.- Izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako diru-laguntzak emateko deialdia, Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko

2.- Araua

90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gainekoa.

Agindua, 2014ko ekainaren 24koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinarekin ondoko diru-laguntzak ematearena arautzen baita: Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako direnak.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen helburua hauxe da: Paisaiarako Ekintza Planak prestatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako diru-laguntzak emateko deialdia arautzea.

90/2014 Dekretua, kainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko, ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak Paisaiaren ekintza-planak kudeaketa-bitartekoak direla, eta paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko jardunen eremuan egin beharreko ekintzak zehazten dituztela, paisaiaren katalogoetan eta paisaiaren zehaztapenetan oinarrituta.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ondoren dira programarako aurrez ikusitako adierazleak eta magnitudeak lortutako emaitzei dagokionez:

ADIERAZLEA	MAGNITUDEA	LORTUTAKO EMAITZAK
Aurkeztutako eskariak	9	34
Emandako diru-laguntzak	7	12
Emandako diru-laguntzengatik axola izandako populazioa	70.000 biztanle	95.306 habitantes
Diru-laguntza programen aurrekontua gauzatzea	40.000 €/Plana	23.181,25 €/Plana, batez bestekoa

1.- Izenburua

Informazio geografikoa hobetzeko eta udal-mapak egiteko diru-laguntzak ematea.

2.- Araua

Informazio geografikoa hobetzeko eta udal-mapak egiteko diru-laguntzak arautzeko den Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko apirilaren 16ko Agindua.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Xedea udal mugartearen mapa digitala egiteko gastuetarako diru-laguntzak ematea da, horrez gain, nahi izanez gero, mapa paperean egin daiteke; horretarako mapa topografikoan jarri ohi diren elementu guztiak batu, berrikusi eta aurkitu behar dira, eta ondoko hauek agertu behar dira derrigorrean: toponimia, kale-izendegia eta interes publikoko zerbitzuak, instalazioak eta hiri-elementuak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2014ko aurrekontuen memorian, diruz laguntzeko 50 udaleko magnitudea aurreikusi zen, baina deialdi horretan 46 eskaera aurkeztu ziren. Horietatik 3 ukatu ziren, eskatutako baldintzak ez betetzeagatik.

Aginduak ezarritako irizpideei jarraiki, deialdiaren zenbateko osoa (210.000 €) gainontzeko 43 eskaeraren artean banatu zen proportzionalki, hau da, diru-zuzkiduraren % 100a. Beraz, lortutako emaitza bikaina izan da, eskaera-kopuruari eta aurreikuspen ekonomikoari dagokienez. Geroago, diru-laguntzen esleipendunen 9k uko egin zuten; hortaz, diru-laguntzaren zenbateko osoa 167.147,37 € izan da.

Diruz lagundutako 34 mapetatik, 12 informazio digitalekoak baino ez dira, eta gainontzeko 22ek paperezko inpresioa ere badute.

Mapa horien erabilgarritasunari eta inpaktu sozialari dagokienez, azpimarratu beharra dago udalentsat eta herritarrentzat zein garrantzi handia duen bizi diren udalerriaren toponimia ezagutzeak, baita kale-izendegia, udal-elementuak, bideak, inguruak eta kartografia oro har eguneratuta jasotzen dituen mapa izateak ere.

2014tik aurrera, aurkeztu beharreko agiriak berregin dira; horrela, udal-mapek irizpide bateratuago eta osatuagoari jarraitzen diote. Horren ondorioz, informazio hori jakinarazi eta errazago erabil dezakete kartografia ofizialaren mantentze-lanetan. Horri guztiari datu horiek hainbat administrazioen web-orrialde ofizialetan argitaratzeko betebeharra erantsi behar zaio, zabalkunde osoa lortzeko.

1.- Izenburua

Salgaien garraio publikoaren sektorean lanbidea uzteagatiko laguntzak

2.- Araua

Agindua, 20014ko ekainaren 10ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, salgaien garraio publikoaren sektorean lanbidea uzteko laguntza-programa bat ezartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Errepidez egiten den garraio publikoaren sektoreak nozitzen duen arazoetako bat garraiolari autonomoen adin handia da, eta horri aurre egiteko emango da laguntza. Izan ere, komeni da laneko urterik gehienak errepideko garraio publikoan eman dituzten adin handiko profesionalak lanbidea utz dezaten sustatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza horiek finantzatzeko, hasiera batean, 150.000 euro ezarri dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren kontura.

Laguntza horiek eskatzeko espediente-kopuruak gora egin du: 17 izan dira, eta horietatik, 12ri eman zaie laguntza (122.300 euro).

Araua aurrekontu-programaren helburu, ekintza eta adierazle hauei eragiten die:

HELBURUA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA

EKINTZA GARRAIOLARIANTZAKO LAGUNTZA

ADIERAZLEA: Lanbidea uztea (garraio-baimenari uko egiten dioten garraiolarien kopurua): 10

Emaitzek gainditu egiten dituzte 2014rako aurrekontu-memorian 10 magnitudean ezarritako helburuak: 17 eskabideetatik, 12 izan dira laguntzen onuradunak, eta, beraz, 12 izan dira lanbidea utzi duten eta baimenari uko egin dioten adin handiko garraiolariak. Beraz, eskabide-kopurua handia da, eta horrek lagundu egiten du programaren helburuak lortzen.

1.- Izenburua

Salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAeko garraio publikoan teknologia berrietarako eta segurtasunerako sistemak ezartzeko laguntzak.

2.- Araua

Agindua, 2014ko ekainaren 10ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAeko garraio publikoaren sektorean teknologia berrietarako eta segurtasunerako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horren bidez, salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAeko garraio publikoan teknologia berrietarako eta segurtasunerako sistemak ezarri nahi dira, helburu izanik zerbitzu seguruagoa, hobea, gardenagoa eta arinagoa ematea; hori, alde batetik, positiboa da garraiolariarentzat, puntako teknologia erabiliz zerbitzua modernizatzeko aukera emango diolako; eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzua jasoko duelako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza horiek finantzatzeko, 50.000 euro ezarri dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren kontura.

Laguntza horiek eskatzeko espediente-kopuruak gora egin du: 27 izan dira, eta horietatik, 18ri eman zaie laguntza (29.731,40 euro).

Arauk aurrekontu-programaren helburu, ekintza eta adierazle hauei eragiten die:

HELBURUA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA

EKINTZA: GARRAIOLARIENTZAKO LAGUNTZA

ADIERAZLEA: Modernizatzea (teknologia berriak, intermodalitatea): 5

Programaren gauzatze- zein betetze-mailari eta lortu nahi diren helburuei dagokienez, lortutako emaitzek (27 eskabide eta 18 onuradun) gainditu egiten dituzte aurrez ezarritako helburuak 2014rako 5 eskabidetan. 2015erako aurrekontu-memorian berrikusi da magnitude hori.

1.- Izenburua

Salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAeko garraio publikoaren sektorean kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntzak.

2.- Araua

Agindua, 2015ko ekainaren 10ekoa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAeko garraio publikoaren sektorean kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezartzeko laguntza-programa bat sortzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horren bidez, salgaiak eta bidaiariak errepidez eramateko EAeko garraio publikoan kalitatezko kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako sistemak ezarri nahi dira, helburu izanik zerbitzu seguruagoa, hobea, gardenagoa eta arinagoa ematea; hori, alde batetik, positiboa da garraio-enpresarentzat, enpresa modernizatzeko aukera emango diolako, zerbitzuak bezeroak nahi duen bezala eta eskatzen duen kalitatearekin kudeatu eta emateko sistema batekin; eta bestetik, erabiltzailearentzat ere onuragarria da, kalitate, gardentasun eta segurtasun handiagoko zerbitzua jasoko duelako.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza horiek finantzatzeko, 30.000,00 euro ezarri dira, Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren kontura.

Laguntza horiek eskatzeko espediente-kopuruak gora egin du: 16 izan dira, eta horietatik, 13ri eman zaie laguntza (11.803,42 euro).

Arauk aurrekontu-programaren helburu, ekintza eta adierazle hauei eragiten die:

HELBURUA: MUGIKORTASUN JASANGARRIA

EKINTZA: GARRAIOLARIENTZAKO LAGUNTZA

ADIERAZLEA: Modernizatzea (teknologia berriak, intermodalitatea): 5

2014ko aurrekontu-memorian ez da berriaz jasotzen, baina aurreko urteetan oinarrituta, dagokion adierazlea ziurtagiridun enpresen kopuruari dagokiona da, eta, beraz, programaren gauzatze- zein betetze-mailari eta lortu nahi diren helburuei dagokienez, 2014an izandako emaitzak kontuan izanda (16 eskabide eta 13 onuradun), erantzuna egokia dela uste da. 2015erako aurrekontu-memorian berrikusi da hori, eta 15 eskabideko magnitude bat sartu da.



1.- Izenburua

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei diru-laguntzak, 2014

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko uztailaren 23koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 19ko 260/2010 Dekretuan ezarritako diru-laguntzetara biltzeko 2014ko deia egiten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa enpresei zuzenduta dago eta bi prozedura aurreikusten dira:

- prozedura erraztua: norgehiagoka ez den prozedura.
- prozedura arrunta: norgehiagoka-prozedura eta banaketa proportzionala bidezko zenbatzea.

Programa honen helburu nagusia Ingurumena hobetzeko inbertsioak bultzatzea edo sustatzea da. Programan Aurreikusitako inbertsioak ingurumenari ekarriko dion hobekuntza kuantitatiboa eta kualitatiboa, proiektuaren kalitatea, ETEk egindako inbertsioak, enplegu sorreraren sustapena eta EAEko produktu eta zerbitzuen kontratazioa lehenkarazten da.

2014 ekitaldirako, diruz lagun daitezkeen lerro hauen deialdia egingo da:

- a) Indarrean diren ingurumen-babeserako arauak gainditzera bideratutako inbertsioen aurretik egin beharreko ingurumen bideragarritasuneko eta bideragarritasun teknikoko azterketak egiteko laguntzak. Lerro horren barruan diruz lagunduko dira, besteak beste:
 - Biogasa produzitzeko azterlanak eta hondakindegietan hondakinak tratatzeko instalazioetan hondakinen deskonposizioak sortutako metanoaren oxidazioaren potentziala zehaztea, eta aprobetxatzeko eta/edo berriz erabiltzeko aukerak ebaluatzea.
 - Eraikuntzako eta eraispenetako hondakinak balorizatzeko instalazioetatik datozen agregakin birziklatuek honako hauetan nola aplikatu daitezkeen zehazteko azterlanak:
 - Hondakindegirako edo balio ekonomiko eskaseko erabileretara bideratutako plastiku- eta kautxu-hondakinen erabilera aurreratuak eta baliozko erabilerak bultzatzeko azterlanak (sektore nautikoa, hiriko altzariak, amortiguazioa, piezen estrusioa produktu berriak egiteko...). Azterlan horietan, haiek komertzializatzeko behar diren arau teknikoak jaso beharko dira.
- b) Enpresa onuradunari aplikatzekoak diren arauak gainditzen dituen mailako ingurumen-babesa lortzera bideratutako inbertsioak finantzatzeko laguntzak, edo, aplikatzeko



araurik egon ezean, ingurumenaren babesa hobetzekoak diren laguntzak. Hain zuzen ere, deialdi honetan, animalienak ez diren errausketa-labeetan sortutako emisio atmosferikoak gutxitzera eta/edo tratatzera bideratutako ekipoetan egiten diren inbertsioak bakarrik lagunduko dira diruz.

- c) Ingurumenaren alorreko kanpo aholkularitzako zerbitzuen kanpoko kostuak finantzatzeko ETEentzako laguntzak. Deialdi honetan, hurrengo azpilerroak soilik lagundu ahal izango dira diruz: EMAS Ingurumenaren Kudeaketako Europako Sistemaren Erregistroan inskribatzeko laguntzak; EMAS erregistroa berritzeko laguntzak; UNE-EN ISO 14.006 Ekodiseinuko Arauaren, I motako edo III motako ekoetiketen edo karbono-lorrazaren ziurtagiriak ezarri eta egiaztatze laguntzak; Hondakinen planak idazteko laguntzak, eta, Kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituen lurzoruaren kalitatea aitortzeko laguntzak, ikerketa bultzatzen duenak ez duenean zertan hori derrigor egin behar.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetan 35 eskari jaso dira eta horietatik 32 proiektuei eman zaie diru laguntza. Diru-laguntzak horrela banatu dira:

Lerroa	Azpilerroa	Emandako laguntzen kopurua	Zuzkidura erabilgarri	Esleitutako zuzkidura
Azterketak	Azterketak	8	80.000,00	62.777,50
Inbertisoak	errausketa-labeetako araztegiak	6	300.000,00	300.000,00
ETEi aholkularitza	EMAS inskripzioa	6	30.000,00	24.035,00
	EMAS berritzea	3	15.000,00	2.201,50
	Ekodiseinu, ekoetiketa, karbono lorratza	7	25.000,00	17.360,00
	Hondakinen planak	2	20.000,00	2.700,00
	Lurzoru kalitateari buruzko deklarazioa	0	30.000,00	0,00
GUZTIRA		32	500.000,00	409.074,00

Deialdi honetan bakarrik azpilerro batek aurreikusten ditu inbertsioak ekipoetan, alegia,

errausketa-labeetan sortutako emisio atmosferikoak gutxitzera eta/edo tratatzera bideratutako ekipoetan egiten diren inbertsioak.

Diruz lagundutako 6 proiektu horiek burutzea hurrengoa suposatuko du:

- 19 kg/urtean merkurio emisioen murrizketa
- 1,8 tona/urtean HCl (azido klorhidriko) emisioen murrizketa
- 2,2 tona/urtean partikula emisioen murrizketa
- 0,7 tona/urtean COT emisioen murrizketa



1.- Izenburua

Garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, tokiko erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak.

2.- Araua

2014ko ekainaren 24ko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, tokiko erakunde autonomoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Programaren xedea garapen jasangarria sustatzeko ekintzak gauzatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udalek, mankomunitateek, beste toki-entitate batzuek, tokiko erakunde autonomoek, tokiko garapen-agentziek eta tokiko merkataritza-sozietateek eska ditzaketen diru-laguntzak ematea da, betiere honako lerro hauekin bat etorritz:

- a) Lurzoru kutsatuak. Tokiko titulartasun publikoko lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Atmosfera. Airearen kalitatea hobetzeko eta berotegi-efektuko gasen zuzeneko murrizketa bultzatzeko ekintzak, aurrerantzean klima aldaketako eta airearen kalitateko ekintzak.
- c) Biodibertsitatea. EAEko dibertsitate biologikoa sustatzeko ekintzak.
- d) Eskolako Agenda 21. Eskolako Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 egitasmoen arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzak.

Aurrekoez gain, diruz lagundu daitezkeen ekintzek honako baldintzak bete beharko dituzte:

Lurzoru kutsatuen lerroan, kutsatutako lurzoruak ikertzeko eta leheneratzeko ekintzak lagundu ahal izango dira diruz, bai industria-jarduerak eduki dituzten lurzoruetan egiten direnak, bai eta 1994ko abenduaren 20a baino lehenago bertan behera geratutako kontrolatu gabeko hondakin biltegietan egiten direnak ere –egun horretan sartu zen indarrean Hondakin geldo edo geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua–. Hori bai, diruz lagundutako leheneratze-ekintzak aurretiazko ikerketa-fasea bukatu ondoren hasi behar dira derrigorrez. Horrez gain, leheneratze-ekintzon azken helburua lurzoruaren kalitatea kokalekuak etorkizunean izango duen erabilerarekin bateragarria izatea izan behar da. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutako proiektuen baitako ingurumen jarraipeneko ekintzek ere jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak.



Aipatutako ekintzak tokiko titulartasuneko lurretan egiten direnean bakarrik lagunduko dira diruz, betiere, noski, besteren bat behartuta ez badago diruz lagunduko den jarduera egitera lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko legediaren arabera -salbuespena jarduera egitera behartutakoa konkurtso egoeran egoteagatik berau aurrera eramateko gai ez izatea da-. Titulartasun partekatuko lurretan gauzatu beharreko proiektuen kasuan, diru-laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko udal edo erakunde eskatzailearen titulartasunaren ehunekoa hartuko da kontuan.

Entitate eskatzaileak otsailaren 4ko 1/2005 Legea indarrean sartu aurretik, hau da, 2005eko maiatzaren 16a baino lehenago, izan behar du formalizatuta kasuan kasuko lurzoruaren eskuraketa (1/2005 Legea, otsailaren 4koa, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa); udalak lurzoruaren titulartasuna bere aldeko kreditu baten ordainez eta nahitaezko betearazpen bidez jaso badu, betekizun hau ez da ezinbestekoa izango.

Lurzoru publikoak leheneratzeko ekintzak etxebizitzak eraikitzeko edo lurzoru industrial bihurtzeko egiten badira, ezin izango da diru-laguntzarik jaso.

Atmosferaren lerroan, honako arloak sustatzen dituzten ekintzek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak:

- a) Airearen kalitatea hobetzea, partikulekin (PM₁₀, PM_{2.5}) eta nitrogeno dioxidoarekin (NO₂) lotuta.
- b) Airearen kalitatea hobetzea animalienak ez diren errausketa-labeetan iragazketa-ekipoak ipiniz.
- c) Zarata-mapak egitea 100.000 biztanletik beherako udalerrietan, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zarata murrizteko proiektuak prestatzea.
- d) Berotegi-efektuko gasen isurpenak murriztea.
- e) Klima aldaketaren eraginak murriztea eta ekosistemen erresilientzia hobetzea “Udalsarea 21 lan koadernoak, 12. zenbakia: Klima aldaketara egokitzeko udal programak egiteko gidaliburuak” eta “Euskadiko hirigintzaren plangintzari buruzko eskuliburua klima aldaketa arintzeko eta klima aldaketara egokitzeko” lanetan jasotakoek tankerako ekintzak baliatuta, besteak beste:
- f) Bero-uharteak murriztea.
- g) Gaur egun guztiz artifizializaturik dauden ibaiertzak leheneratzea, helburutzat ibaiertzeko landaredia leheneratzea eta ibaiaren inguruko lurzoruaren egoera eta iragazkortasuna hobetzea edukita, epe luzeko uholdeak prebenitzeko, betiere ekintza horiek aldeztu aurretik adostu badira Uraren Euskal Agentziarekin dagokion lankidetzaren hitzarmena sinatuz.



- h) Klima aldaketara egokitzeko ekintza planak egitea; plan horien emaitzetan udalerrian epe luzeko agertoki batean (gutxienez hogeit urtera) urrakortasun-egoerak murrizteko ezarri beharreko egokitze-ekintza zehatzak xehe-xehe definitu beharko dira.
- i) Udal-eraikinen etorkizuneko birgaikuntzetan gauzatu beharreko ekintzen azterlan zehatzak egitea, 8/2013 Legearen, birgaitzeari eta hiri-berroneratzeari eta berritzeari buruzkoaren, zuzentarauak betetzeko.

Honako ekintza hauek, berriz, ezin izango dira diruz lagundu:

- a) Klima aldaketan eta airearen kalitatean eragin txikia duten ekintzak, adibidez: bizikleta aparkalekuak jartzea; bizitegi-eremuak ikastetxeekin eta/edo industrialdeekin eta/edo udal kirol-instalazioekin lotzea lehenesten ez duten bidegorriak jartzea; oinezkoentzat bideak jartzea; argiak ordeztzea, ikuskaritza energetikoak egitea edota argiztapena eguneratzea bezalako energia-eraginkortasuneko proiektuak.
- b) Galdarak instalatu edo ordezkatzeta, berriek lehen zeudenak baino isurpen gutxiago eragin arren.
- c) Hondakinak kudeatzeko ekintzak.
- d) Azterlanak edo diagnostikoak egitea (mugikortasun planak adibidez), agindu honetan berariaz aipatutakoak salbu.
- e) Ez dute diru-laguntzarik jasoko azpiegiturak eraikitzea dakarten ekintzek, baldin eta azpiegiturotan ez badira kontuan hartu irizpide ekologikoak eta hiriko ingurumena hobetzeko irizpideak, azpiegiturok paisaian txertatzea eta ingurune naturalaren gaineko eragina txikitzea kasu.

Biodibertsitatearen lerroan, biodibertsitatearen kontserbazioa, leheneratzea edo hobekuntza sustatzen duten honako ekintza hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Komunitatearentzat eta eskualdearentzat interesekoak diren habitat naturalak kontserbatzeko egiten diren leheneratze-, hobetze- edo kudeatze-ekintzak. Kontserbatzeko interes handiagoa duten edo kontserbazio-egoera hobea duten habitaten gainean egindako ekintzak lehenetsiko dira, hala nola erriberako basoak, bertako basoak, padurak, eta abar. Alderdi hori egoki justifikatu beharko da proiektuaren memorian.
- Maila komunitarioan edo eskualdekoan babestutako basa flora eta fauna espezieak babesteko eta kontserbatzeko proiektuak. Horrez gain lurraldeko lotura ekologikoa hobetzen laguntzen duten proiektuak lehenetsiko dira.
- Flora exotiko inbaditzaileko espezieak desagerrarazteko proiektuak, narriatuta dauden habitat naturalak leheneratzea ere jasotzen badute.

- Faunarentzako urmaelak eta hezeguneak sortu eta leheneratzea.
- Lurraldearen lotura ekologikoari laguntzen dioten jardunak.

Zehazki, lehentasunezkoak izango dira aurreko ataletan dauden eta, gainera, Natura 2000 eremuen kontserbazio-neurrien agiritan (edo kudeaketa planetan) ere jasota dauden ekintzak (hemen eskuragarri: www.euskadi.net/natura2000).

Diruz lagunduko dira, halaber, aurreko ataletan jasota dauden eta administrazio-baimena behar duten ekintzak gauzatzeko behar diren lizentziak eta baimenak lortzeko idatzitako proiektuak.

Diruz lagundu ahal izango dira, orobat, erribera eta ibilguetako hondakinak garbitzeko jardunak, betiere udal eskatzailearen eta Uraren Euskal Agentziaren artean sinatutako lankidetzahitzarmenen esparruan egiten badira. Horrelako hitzarmenek nahitaez bete beharreko baldintza batzuk bilduko dituzte biodibertsitatea kontserbatzeko eta babesteko.

Ez dira diruz lagunduko, berriz, ezagupenak eskuratzeko azterlanak edo argitalpenak idaztea edo sentsibilizatze-ekintzak egitea beste helbururik ez daukaten eskaerak.

Ez dira diruz lagunduko, era berean, obra edo proiekturen baten ondoriozko babes- edo leheneratze-proiektuak nahiz jardunak, baldin eta neurri zuzentzaile edo konpentsatzaile gisa ezarri badira.

Eskolako Agenda 21 lerroan, Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 egitasmoen arteko koordinazioa sustatzen duten ekintzek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak, betiere 2015eko uztailaren 1etik 2015eko uztailaren 15era bitartean egiten badira. Ekintzon artean, ikasturte bakoitzean, gutxienez eskola arteko foro bat antolatu beharko da, bai eta udal-foro bat ere. Foro horietan, besteak beste, aurreko foroetan hartutako konpromisoen jarraipen-txosten bat aurkeztu beharko da.

Aginduan jasotako aurrekontuko diru hornidura honela banatuko da:

Diru-laguntza lerroa	Aginduan jasotako aurrekontuko diru hornidura
Kutsatutako lurzoruak	550.000 euro
Atmosfera	550.000 euro
Biodibertsitatea	550.000 euro
Eskolako Agenda 21	160.000 euro
Aurrekontua guztira	1.810.000 euro



Lerro bakoitzean konkurrentzia lehiakorrean dauden diru-laguntzak dira, Eskolako Agenda 21 lerroan ez ezik, bertan diru-laguntzak konkurrentzia ez lehiakorrean esleitzen badira. Diru-laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen gehieneko ehuneko bat ezarriz kalkulatzen da. Ehuneko horiek lerro batetik bestera aldatu egiten dira, eta BEZa ezin da diruz lagundu.

Laguntza deialdia, Eskolako Agenda 21 lerroan salbu, lehiaketa bidez egiten da; balorazio fasean gutxienez 50 puntu jasotzen dituzten jarduerak bakarrik jaso ditzakete diru-laguntzak – laguntzok arautzeko aginduan ezarritako irizpideen arabera emango ditu puntuak organo ebaluatzaileak—. 50 puntu baino gehiago jasotzen duten proiektuen ordena ez dago lotuta proiektu bakoitzak jaso beharreko kopuru ekonomikoarekin. Irizpide hori bakarrik hartuko da kontuan; 50 puntu baino gehiago lortutako proiektu guztiak ordaintzeko adina dirurik ez badago. Kasu horretan, puntuazio altuena lortu duten proiektuak lagunduko dira diruz, jardun bakoitzeko lerroan aurrekontu-kreditua agortu arte.

Eskolako Agenda 21 lerroan, diru-laguntzak konkurrentzia ez lehiakorrean esleitzen dira eta laguntzon kuantifikazioa udal kopurua, ikastetxe kopurua eta ikasle kopurua kontuan hartuta hartuta egiten da, diruz lagundu daitezkeen gastuaren % 50 arteko zenbatekoak esleituz, betiere 15.000 euroko mugarekin.

Gainontzeko kasuetan, proiektu bakoitzean diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa lerroaren araberakoa da:

Lurzoru kutsatuen kasuan, 35.000 biztanle baino gehiagoko tokiko erakundeek edo udalerriaz gaidiko erakundeek egindako ingurumen ikerketa eta jarraipeneko lanak % 90 arte lagunduko dira diruz, eta, leheneratze-lanak, % 60 arte. 35.000 biztanle baino gutxiagoko tokiko erakundeen edo udalerriaz gaidiko erakundeen kasuan, berriz, ingurumen ikerketa eta jarraipeneko lanak % 90 arte lagunduko dira diruz, eta, leheneratze-lanak, % 60 arte. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 60.000 eurokoa da ikerkuntza-proiektu bakoitzeko, eta 200.000 eurokoa, leheneratze-proiektu bakoitzeko.

Zabortegetan egiten diren ingurumen-jarraipeneko proiektuen kasuan, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 15.000 eurokoa izango da.

Atmosfera lerroko proiektuen kasuan, 7.000 biztanle baino gehiagoko tokiko erakundeetan edo udalerriaz gaidiko erakundeetan diru-laguntza ezingo da diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren % 50 baino gehiagokoa izan, eta, 7.000 biztanle baino gutxiagoko tokiko erakundeetan edo udalerriaz gaidiko erakundeetan, % 75 baino gehiagokoa. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa proiektuko 80.000 eurokoa izango da. Zarataren gaineko planak eta mapak egiteko diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 15.000 eurokoa izango da.



Ibilgailuei buruzko proiektuen kasu zehatzean, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 4.000 eurokoa izango da hamar plaza baino gutxiagoko ibilgailu bakoitzeko, eta 20.000 eurokoa ibilgailu handiagoentzat.

Birgaitzeko proiektuen aurretiko xehetasun-azterlanen kasuan, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 6.000 eurokoa izango da.

Biodibertsitatea lerroko proiektuen kasuan, 7.000 biztanle baino gehiagoko tokiko erakundeetan edo udalerriaz gaindiko erakundeetan diru-laguntza ezingo da diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren % 70 baino gehiagokoa izan, eta, 7.000 biztanle baino gutxiagoko tokiko erakundeetan edo udalerriaz gaindiko erakundeetan, % 90 baino gehiagokoa. Ehuneko maximoa Natura 2000 sareko kudeaketa-planetan jasotako jardueri dagokie, gainontzekoak % 50eko eta % 70eko diru-laguntzak jasotzen dituztelarik hurrenez hurren.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 100.000 eurokoa da proiektu bakoitzeko; hala ere, lizentziak eta baimenak lortzeko proiektuak idazteko, gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa da.

Erriberetan eta ibilguetan hondakinak garbitzeko proiektuen kasuan, diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da.

Eskola Agenda 21 egitasmoko ekintzetarako, diru-laguntza ez da izango diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbatekoaren % 50 baino handiagoa, eta erakunde onuradun bakoitzari ere ez zaizkio 15.000 euro baino gehiago emango.

Agindu honetan araututako diru-laguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko edo pribatuek helburu berarekin eman ditzaketen beste diru-laguntzekin, gainfinantzaketarik gertatzean salbu. Gainfinantzaketa gertatuz gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehieneko mugaraino.

Ordainketa moduari dagokionez, diru-laguntzaren ehuneko baten ordainketa aurreratua aurreikusten da –bi ordainketa aurreraturen bitartez–; horrela, erakunde onuradunek funtsen zati bat izango dute eskura diruz lagundutako ekintzak egiten hasteko.

Diru-laguntzaren gainontzeko zatia jasotzeko ekintzok justifikatzeko agiriak aurkeztea ezinbestekoa izango da, betiere lerro bakoitzean aurreikusitako epeak betez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Diru-laguntza aginduetako aurrekontu memorieta erabilitako adierazle komuna diru-laguntzak jaso dituzten proiektuen kopurua da; hori dela eta, jarraian diru-laguntza aginduak parametro horretan izandako bilakaera deskribatzen da.



Orain arte, 1.063 proiektu finantzatu dira, guztira 45,1 milioi euro.

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	GUZTIRA
Aurrekontuko diru-hornidura <i>milaka eurotan</i>	7.160	7.440	8.402	7.100	6.734	3.705	2.000	1.810	41.641
Ebazpeneko diru-hornidura <i>milaka eurotan</i>	7.126	8.845	7.701	7.100	6.734	3.705	2.119	1.810	45.140
Diruz lagundutako proiektu kopurua	194	174	176	116	104	67	120	110	1.063

2014an 158 eskaera jaso dira guztira. Eskaeron xehakapena honakoa da lerroka: lurzoru kutsatuak 27, atmosfera 52 (klima aldaketa 33 eta airearen kalitatea 19), biodibertsitatea 36 eta Eskolako Agenda 21 ekimena 43.

Jasotako eskaeren artean, euskal tokiko erakundeen 110 proiektuk Ingurumeneko sailburuordearen 2014ko abenduaren 30eko Ebazpenaren bitartez jaso dituzte diru-laguntzak. Ebazpen horrek garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, tokiko beste erakunde batzuei, tokiko erakunde autonomikoei, tokiko garapen-agentziei eta tokiko merkataritza-sozietatei diru-laguntzak ematea arautzen duen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduko laguntza deialdia ebazten du.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 24ko Aginduaren 3.2 artikulua eskaera faltagatik edo ezarritako baldintzak ez betetzeagatik jarduera lerroetakoren bati esleitutako diru kopurua ez bukatzea aurreikusten duenez, beste jarduera lerro bati esleitutako diru kopurua areagotu ahal izango da. Erakunde ebaluatzailearen proposamena jarraituz, aurrekontuko diru-hornidura honela banatu da:

- Tokiko titulartasun publikoko lurzoruen kalitatea ikertzeko eta leheneratzeko 20 proiektuk 482.994,64 euro jaso dituzte.
- Airearen kalitatea hobetu eta berotegi efektuko gasen isurpenen murrizketa zuzena ahalbidetzeko 27 proiektuk 696.479,72 euro jaso dituzte.
- Euskal Autonomia Erkidegoko biodibertsitate biologikoa mantendu eta hobetzeko 21 proiektuk 470.525,64 euro jaso dituzte.
- Eskolako Agenda 21 egitasmoa 42 proiektuk 160.000 euro jaso dituzte.

**Ingurumen emaitzak:**

1.- Diru-laguntzen 2014ko deialdian jasotako jarduerak egiteko epea 2016ko abenduaren 31n amaitzen denez, oraingoz diruz lagundutako proiektuen ingurumen eragin potentzialaren gaineko datuak bakarrik ditugu:

Atmosfera lerroan diru-laguntzak jaso dituzten 27 proiektuen artean, zarata mapak egiteko, klima aldaketara egokitzeko edo eraikuntza jasangarria bultzatzeko azterketak daude. Finantzatutako jarduera lerro honen baitan, urtean atmosferara 1.000 tona karbono dioxido, 500 kilo partikula eta 1.500 kilo NOx isurtzea saihestuko da, batik bat kontsumituko ez den erregaiari esker. Zaratarekin lotutako arauak ezarritako betebeharreari aurre hartu diete 18 udalek.

Lerro honetan diruz lagundutako proiektuen artean, jada aipatutako azterketez gain, honakoak nabarmentzen dira: isurpen kutsatzaileen gaineko araudiak ezarritako gutxienezko baldintzak hobetzen dituzten ibilgailu ekologikoak erostea –berrikuntza gisa ibilgailu elektrikoak erostea bultzatuko da–, errausketa labeetan filtrazio ekipoak instalatzea, mugikortasun ez motorizatua bultzatzea industrialdeetara joateko, bidegorrien arteko loturak bultzatzea, basoberritzea bultzatzea basoek karbono hustuleku gisa betetzen duten funtzioa dela eta.

Biodibertsitatearekin lotutako proiektuei dagokionez, diruz lagundutako hogeit hamar proiektuen artean, beste behin ere, ohikoenak intereseko habitatak suspertu edo/eta leheneratzera bideratutakoak izan dira (% 44). Deialdi honetan, Europa mailan edo eskualde mailan babestutako flora eta faunako espezieak babestu eta kontserbatzeko proiektuak nabarmentzen dira (guztien % 28). Espezie exotiko inbaditzaileei deuseztatzeko proiektuak esleitutakoen % 16 izan dira oraingoan. Kutsatutako lurzoruen lerroari dagokionez, ikertu eta leheneratzeko azalera potentziala ebaluatu da. Onartutako hogeit eskaerek, guztien artean, ikertu edo leheneratzeko 26,3 hektarea hartzen dituzte baitan. Horietatik 8,4 hektarea ikertu egingo dira, 1,6 hektarea berreskuratu eta 16,3 zabortearen ingurumen jarraipen eta leheneratze proiektuekin lotuta daude.

Azkenik, Eskola Agenda 21 eta Tokiko Agenda 21 egitasmoen arteko koordinazioa bultzatzeko lerroan 65 euskal udalek, 334 ikastetxe eta lehen eta bigarren hezkuntzako 174.919 haurrek hartu dute parte. Batik bat elikadura jasangarrian, hondakinen arloan eta mugikortasun jasangarrian egingo da lan era koordinatuan. Koordinazio arloan lehentasuna izango duten jarduerak, berriz, udal eta eskola foroak eta aztertutako gaien inguruko txostenak egitea izango dira. Komunikazioari dagokionez, diagnostikoak egiteko irteerak eta esperientzia trukaketa bultzatuko dira.

2007an diru-laguntza agindu hau martxan jarri zenetik, mila udal proiektu inguruk jaso dute diru-



laguntza eta Eusko Jaurlaritzak 45 milioi eurotik gora bideratu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen hobekuntza bultzatzera.

2.- Diru-laguntza aginduak azken urteotan izandako ingurumen-inpaktua aztertuko dugu jarraian.

2014an 2007tik 2012ra bitartean diru-laguntza aginduaren deialdiek izandako ingurumen-inpaktuaren zein eragin ekonomikoaren azterketa zehatza egin genuen. Izan ere, deialdiotan jasotako proiektuen itxiera ekonomiko eta teknikoa eginda dago jada.

Instrumentu honen eragin ekonomikoarekin lotuta ateratako ondorio nagusiak honakoak dira:

- 38,2 milioi euroko diru-laguntza partida batetik abiatuta guztira ia 84 milioi euro mobilizatzea lortu da diru-laguntzak jaso dituztenek egindako ekarpen osagarriei esker.
- Guztira erabilitako funtsen urtean urteko banaketa eginez gero (diru-laguntzak eta mobilizatutako beste funtsak kontuan izanik), urteko 14 milioi euro inguruko batez bestekoa izango dugu, lehen ekitaldian gastatu bazen ere diru gehien (18,8 milioi) eta azkenengoan gutxien (8,4 milioi).
- Sortutako zuzeneko jardueren zati esanguratsu bat (% 60) **eraikuntza** lanekin lotuta daude, eta, jarraian **holkularitza eta laguntza teknikoarekin** lotutako jarduerak daude (% 19). **Automobilgaintza** eta bere osagaiekin lotutako jarduerak % 5 baino zerbait gehiago dira, **bidaiari garraioarekin**, lotutakoak bezala.
- Azkenean erabilitako ia **84 milioi euroe**iesker, Estatu osoko **ekoizpen totala 207 milioi euro**baino gehiago areagotu zela kalkulatzen da, **83,6 milioi euroko errenta (barne produktu gordina) eta 1.400 lanpostu**inguru sortuz.
- Zehatz-mehatz **EAEko barne produktu gordinari egindako ekarpen osoa** aztertuta, programa indarrean izandako bost urteetan **68 milioi eurokoa** izan dela eta **1.160 lanpostu** mantentzea ahalbidetu duela kalkulatzen da; hau da, eskualdeko barne produktu gordin osoaren % 0,104 eta batez besteko enpleguaren % 0,123 aztertutako epean.
- Aztertutako epe osoan (2007-2012) emandako **diru-laguntza euro bakoitzeko ekoizpeneko sei euro eta errentako ia hiru euro (barne produktu gordina)** lortu dira erlatiboki, batez beste **ekoizpeneko milioi euroko hamazazpi lanpostu** sortuz.
- Emandako diru-laguntzen eta azkenean benetan erabilitako funtsen zenbatekoak aztertuta, batez beste **diru-laguntza euro bakoitzeko** laguntzon hartzaileek **beste euro eta erdiko ekarpen gehigarriak** egin dituztela egiazta daiteke.



- Diru-laguntzetara bideratutako funts publikoak bakarrik kontuan izanik, hau da, tokiko erakundeek egindako ekarpen gehigarriak kontuan izan gabe, **% 100 inguruko batez besteko zerga itzulera** izango genuke; horrek diru-laguntza ordenaren **autofinantzaketa** suposatuko luke, betiere eragindako zerga bilketaren lurralde banaketa eta administrazioz administrazioiko banaketa kontuan izan gabe.

Jarduera lerroen baitako azpillerroen araberako analisi diferentziatuari dagokionez, honako arloak nabarmen daitezke:

- **Ekoizpenari dagokionez**, eragin biderkatzaile nagusiak lurzoru kutsatuen lerroko **leheneratze azpillerroan** ematen dira, eta, jarraian, biodibertsitatearen lerroko **sentsibilizatorako, ingurumen hezkuntzarako eta interpretatorako ekipamendu publikoak** azpillerroa dago. Errentari dagokionez, sailkapena antzekoa da, Eskolako Agenda 21 eta lurzoruen ikerkuntzako azpillerroetan salbu, ekoizpen biderkatzaile baino errenta biderkatzaile handiagoak baitituzte eskulan gehiago behar izateagatik.
- **Enplegu-intentsitateari** dagokionez, hiru talde handi ezberdintzen dira: **intentsitate altukoak**, sortutako ekoizpen milioiko **23-24 lanposturekin** –Eskolako Agenda 21, biodibertsitatea babesteko aldaketa administratibo eta legegileak, eta kudeaketako langileen gastuak azpillerroak hartzen ditu barnean–; **intentsitate ertainekoak, 20 lanpostu ingururekin** –kutsatutako lurzoruen lerroko ikerkuntza eta jarraipen azpillerroak hartzen ditu barnean–; **intentsitate erlatibo txikiagokoak, 15-16 lanposturekin** ekoizpen milioiko –gainontzeko azpillerro guztiak hartzen ditu barnean–.
- **Zerga itzulerako** ratioa **baliabide pribatuak mobilizatzeko gaitasunak** baldintzatzen du, eta, horren erakusle, zerga itzulera maila altuenak dituzten lerroak mobilizazio ratio altuenak dituztenak dira. Gainontzeko azpillerroetan argi eta garbi nabarmentzen dira honakoak: **leheneratzea** (lurzoru kutsatuak); **sentsibilizatorako, ingurumen hezkuntzarako eta interpretatorako ekipamendu publikoak** (biodibertsitatea); eta **klima aldaketa** (atmosfera). Azpillerrook 2 baino handiagoak diren mobilizazio ratioak dituzte. Mobilizazio ratio altu horiei esker, **% 100etik gorako zerga itzulerakobalioak** dituzte azpillerrook.

Jarraian, murriztutako ingurumen-inpaktuaren analisisia egiten da lerroz lerro:

- **Kutsatutako lurzoruen lerroa:**
 - a. 252 hektarea baino gehiago ikertu dira.
 - b. Leheneratutako 17 hektarea baino gehiago, 524.900 m³ lurzoru leheneratu izana esan nahi duena.
 - c. Jada jarduerarik ez duten zabortegetako 18 hektarearen ingurumen jarraipena egin da.
 - d. Espedienteen % 31 lurzoruaren kalitatea adierazpenetan amaitu dira.



- **Biodibertsitate lerroa:**

- a. 748 hektarea baino gehiago ikuskatu, leheneratu edo sortu dira; horietako 238 hektarea, gainera, babes bereziko guneetan daude, adibidez Natura sarearen barruan, biosferaren erreserbetan edo parke naturaletan.
- b. 354 hektarea baino gehiagotan esku hartu da espezie exotiko inbaditzaileak errotik kentzeko.
- c. 10.000 tona CO₂ baino gehiago xurgatzeko hustuleku gisa joka dezaten basoberritze egitasmoak bultzatzea hurrengo 30 urteetan.

- **Atmosfera lerroa:**

- a. Atmosferara 15.000 tona karbono dioxido baliokide baino gehiago isurtzea eragotzi da, hau da, batez beste 6.602 tona karbono dioxido baliokideko murrizketa izan da urteko.
- b. Atmosferara 1.800 kilo PM10 partikula baino gehiago isurtzea eragotzi da. Urteko batez besteko murrizketa 445 kilo PM10 partikula baino gehiagokoa izan da.
- c. 100 kilometro bidegorri baino gehiago eraiki dira.
- d. 38.000 metro koadro kale baino gehiago egokitu dira oinezkoentzako.
- e. Kutsadura akustikoari dagokionez, azkenik, kontuan izan behar da atmosfera lerroan sartutako mugikortasun jasangarriko proiektu guztiek soinu-inpaktuaren murrizketa esanguratsua dakartela berez. Bestalde, zarata mapak egiteko araudiaren betetzea aurreratzea pizgarria izan da tokiko erakundeek arlo honetako egitasmoak martxan jartzeko.

- **Eskolako Agenda 21 lerroa:**

- a. Batez beste 70 udalerrri, 334 ikastetxe eta 174.000 ikaslek hartu dute parte urteko jasangarritasunarekin lotutako hezkuntza egitasmoetan.
- b. Urtero 55 udal foro egin dira udalerrietako hobekuntza proposamak azaltzeko, baita eskola arteko 49 foro ere esperientziak trukatzeko.
- c. Mugikortasun jasangarria, klima aldaketa, kontsumo ohiturak, elikadura jasangarria eta hondakinak izan dira lehentasunezko lan eremuak.

Edozein kasutan, ingurumenaren zaintzak eta baliabide naturalen erabilpen jasangarriaren sustapenak eragin zuzen zein zeharkako positiboa dute giza osasunarengan. Herritarren osasunarentzako arriskuak saihestek zuzenean eragiten dio diru-kutxa publikoari, osasungintzan aurrezteak eragiten baitu.

Herritarrak ingurumen baldintza kaltegarrien eraginpean badaude, adibidez kutsaduraren eraginez, arnasketa arazoak bezalako osasun ondorio kaltegarriak pairatzen dituzte,

osasangintzan kostu ekonomiko garrantzitsuak eraginez. Horrenbestez, ingurumena zaindu eta hobetzen dugun heinean, zeharka ekonomiari ekarpena egiten ere ari gara.

Aipatutako ekarpenek ekonomiaren, ingurumenaren eta herritarren bizi kalitatearen gaineko eragin positiboak dituzten heinean, diru-laguntza proiektua ekonomikoki justifikatuta geratzen da.

1.- Izenburua

Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko maiatzaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena eta Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, Eskolako Agenda 21 programak garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei eman beharreko diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (2014-2015 ikasturtea).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horiek ematen dira, unibertsitatez kanpoko ikastetxeek 2014-2015 ikasturtean Eskolako Agenda 21 programa gara dezaten. Asmo horrekin, ikastetxeetan egingo diren jarduerak jasangarritasunerako hezkuntza proiektu bakar batean integratuko dira eta honako hiru alderdi hauek izango ditu: parte-hartzea, kudeaketa jasangarria eta curriculum-berrikuntza.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak ezinbestekotzat jotzen du erakundeei diruz laguntzea, ikastetxeetan jasangarritasunerako hezkuntzako berariazko proiektuak jartzeko martxan; izan ere, proiektu horiek, batetik, ikastetxeko hezkuntza- eta curriculum-proiektuetan nahiz geletako programazioan ikuspegi hori sendotuko dute, eta, bestetik, ikasleak edo hezkuntza-komunitateak garapen jasangarrian konpromisoa hartzeko gaituko dituzten kontzientzia, gaitasuna, ezagupena eta balioak garatzen lagunduko dute. Era berean, beharrezkotzat jotzen da jasangarritasunerako hezkuntza ikastetxe-programetan sartzea; beraz, egoki deritza ikastetxeek eta irakasleek ingurumenaren arloan garatzen duten lana aintzat hartzeari.

Eskolako Agenda 21 programa ikastetxearen kalitaterako eta jasangarritasunerako hezkuntza-programa bat da. Hezkuntza-komunitatearen partaidetzan dago oinarrituta, ikasleei aparteko protagonismoa emanez eta udalerriko garapen jasangarriari lagunduz. Gainera, Eskolako Agenda 21ek proposatzen duen hezkuntza-praktikak ikasleari lagunduko dio, batetik, inguruan dituen ingurumen-arazoak ezagutzen eta horietaz jabetzen, eta, bestetik, modu arduratsuan gizarte justuago eta ekologikoki jasangarriago baten alde egiten.

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dauden unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko zein itunpeko pribatu guztiek parte hartu ahal izango dute deialdian, baldin eta Eskolako Agenda 21 programa ezarrita badago ikastetxeak kokatzen diren udalerrietan.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Honako hau izan da 2014an emandako diru-laguntza eta proiektuen laburpena :

2014-15	EMANDAKOAK	
	PROIEKTUAK	ZENBATEKOA
ARABA	44	63.195 €
BIZKAIA	229	314.266 €
GIPUZKOA	175	222.539 €
	448	600.000 €

2014an, 2013an baino 12 ikastetxe gutxiagori lagundu zaie diruz.

Ez dirudi oso errealista denik Eskolako 21 Agenda ezartzen duten ikastetxeen zenbatekoa datozen urteetan nabarmen handitu nahi izatea, egoerak bere horretan jarraitzen badu, behintzat. Sortzen den eragozpenik handiena irakasleek koordinazio-lanak egiteko duten denbora murriztu izana da.

Oraingo egoeran, gure asmoa 2014an lortutako kopurutik gorako zenbatekoak lortzea da.

2014an, "Eskola Jasangarria" aintzatespena jaso duten ikastetxeen kopuruari dagokionez, 6 ikastetxe berriri eman zaie; horrek esan nahi du iazkoaren aldean kopuruak jaitziera izan duela, iaz, 13 aintzatespen berri izan baitziren. Bestalde, 16 ikastetxek ziurtagiria berritu dute; hortaz, EAEn, 89 ikastetxek dute ziurtagiria, iaz baino bi gehiagok.

Ziurtagiria lortu duten ikastetxeek jasotzen duten diru-laguntzaren zenbatekoa igotzeak ez du ekarri ikastetxeak auditoriara aurkezteko moduko motibaziorik. Horretan, 100tik gorako itemak egiaztatzen dira, eta ahalegin handia behar izaten da hori gainditzeko. Lan horren guztiaren onura, batez ere, egiturari, ikastetxearen kalitateari eta hezkuntza-proiektuari dagokio. Gainera, ez da berehala ikusten. Horregatik, uste dugu programari denbora gehiago eman behar zaiola.

Horren ondorioz, ez da bete ziurtagiria jaso duten ikastetxeen kopuruaren helburua, ez baitugu mantendu ikastetxeen zenbatekoa. Baina, ikasleen kopuru osoaren aldean, programan parte hartu duten ikasleen portzentajea nabarmendu beharra dago, horrek hezkuntza formalaren sisteman jasangarritasunerako hezkuntzaren barneratze-mailaren erreferentzia ona ematen baitigu.

1.- Izenburua

Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzak.

2.- Araua

Ingurumen-boluntariotzako proiektuak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzak deitu eta arautzen dituen Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2014ko ekainaren 3ko Agindua. (2014ko ekainaren 13ko EHAA, 111. zk.).

3.- Diru-laguntzen Programaren azalpen laburra eta helburuak

2002ko ekainaren 4an Gobernuaren Kontseiluak onartutako Garapen Jasangarriko EAEko ingurumen Estrategian (2002-2020) adierazten da ingurumen-politiken arloan herritarren eta eragile sozialen lankidetzak aktiboa beharrezko baldintza dela jasangarritasunean aurrera egiteko.

Ildo berean, aipatutako EAEko Estrategia horren arabera, gobernuak kanpoko erakunde, elkarte ekologista, kontsumitzaileen elkarte eta beste erakunde batzuen partaidetza aktiboa ere funtsezkoa izango da, batetik, ardura eta interes kolektiboen gaineko sentsibilizazioa eta zabalkundea egiteko, eta, bestetik, pertsona oro motibatatu eta inplikatzeko.

Ingurumen-boluntariotza da herritarrek parte hartzeko era libre, altruista eta zuzena. Era berean, honako emaitza hauek sortzen ditu: ingurunea hobetzea; eta ingurumena hobetu eta kontserbatzeko motibazioari eta inplikazioari dagokienez eraldaketa pertsonal eta sozial sakona eta iraunkorra.

Helburu horiek guztiak betetzeko asmoz, diru-laguntza hauen lerroa sustatzen da.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Honako hau da 2014ko deialdian emandako diru-laguntzen eta diruz lagundutako proiektuen laburpena:

	EMANDAKO PROIEKTUAK	ZENBATEKOA
ARABA	2	10.359,90 €
BIZKAIA	11	82.660,92 €
GIPUZKOA	3	24.842,98 €
Eskaeren kopurua:	17	
Diruz lagundutako proiektuen kopurua:	16	
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	112.000 €	
Emandako zenbatekoa:	117.863,80 (*)	
Parte-hartzaileen kopurua:	1.739	

Jarduera mota:

- Anfibioen kontserbazioa: 2 proiektu
- Hondakinen garbiketa, ingurumena eta paisaia lehengoratzea: 8 proiektu.
- Erroldak eta eraztunketak: 2 proiektu.
- Toki-haziak berreskuratu/kontserbatzea: proiektu bat
- Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen artean, ingurumen-boluntarioritza sustatzea: proiektu bat
- Enpresa-sektorean, ingurumen-boluntarioritza sustatzea: proiektu bat
- EAeko kostaldean, hondakinen garbiketa: proiektu bat

(*) Diru-laguntzak ematea ebazteko den Ingurumeneko sailburuordearen 2014ko abenduaren 11ko Ebazpenaren kontra elkarte batek aurkeztutako gora jotzeko errekurtsio batek aurrekontuko partida 5.863,80 eurotan handitu beharra ekarri du.

Diruz lagundutako proiektuen kopuruaren adierazlerako ezarritako helburua (14) gainditu egin da, 16 izan baitira. Gainera, nabarmendu beharra dago parte-hartzaileen kopuruaren helburua (1.300) ere gainditu dela, 1.739 izan baitira.

Irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakunde pribatuen artean diru-laguntza hauen lerroak pizten duen interesa altua da. Harrera ona du, eta ingurumenaren hobekuntzan elkarte-lanaren bidez herritarren parte-hartzea eta inplikazioa sustatzeko helburua betetzen du.

1.- Izenburua

Natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduerak –EAEn lurralde-eremuko lur-zaintzako akordioetan sartuta daudenak– finantzatzeko 2014. urteko diru-laguntzak.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko ekainaren 3koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko jarduerak –lur-zaintzako akordioetan barne hartutakoak– finantzatzeko laguntzen 2014ko deialdia, EAEn lurralde-eremuan (EHAA, 111 zk., ekainaren 13koa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Administrazio publikoek beharrezkoak diren alderdi guztietara iritsi behar dutenez haien jardunean ingurumena behar bezala kudeatzeko, natura-zaintzan eta garapen jasangarrian erabiltzeko mekanismo eta tresna berriak sortu dira; besteak beste, lur-zaintzako akordioetako mekanismoa.

Kontserbazio-estrategia berri eta parte-hartzaile gisa eratu da, eta, ildo horretan, EAEn herritarren parte-hartzea lortzea da diru-laguntzen programaren xedea, horrela natura-ondarea kontserbatzen eta garapen jasangarria lortzen laguntzeko jarrera eta ekintzak bultzatzeko.

Horretarako, diru-laguntzen deialdi hau egiten da lur-zaintzako erakunde gisa lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuentzat.

Zaintzarako akordioak lortzea bultzatu nahi da, elkarrekin jarduerak egin ditzaten lurren jabe edo erabiltzaileek edota baliabide naturalen aprobetxamendu- edo erabilera-eskubideen titularrek eta zaintza-erakundeek. Honako hauek izan daitezke zaintza-erakundeak: gizarte-eragileak, fundazioak edo bestelako erakunde pribatuak, betiere irabazi-asmorik gabeak eta helburuen artean dutenak natura-ondarearen eta garapen jasangarriaren alde egitea, horretarako EAEn eremuan eginez ingurumena eta paisaia aktiboki kontserbatzeko, lehengoratzeko eta integratzeko jarduerak.

Natura-ondarearen kontserbazioaren alde jardutea helburu duten jarduerak diruz laguntzeko programa baten barruan daude laguntza hauek, eta, diru-laguntza hauekin, helburu hori duten kontserbazio-jarduerak egin behar dira, hain zuzen ere EAEn lurralde-zaintzako akordioetan sartuta dauden jarduerak, betiere honako hauek ukitzen dituztenak: Natura 2000 Sarea, beste eremu babestu batzuk, EAEn hezeguneetako LAPEko II. eta III. taldeetako hezeguneak, eta aurreko epigrafeetan sartzen ez diren beste lur batzuk, hauek hain zuzen ere: hegazti eta habitatei buruzko 92/43 zuzentarauaren eranskinetan edo arriskuan dagoen basafiora eta basafaunaren EAEn katalogoan sartuta dauden interes komunitarioko basafiora eta basafaunako habitat edo espezieak dituzten lurak.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntzen programa hau 2010. urtean hasi zen, Urdaibain egindako esperientzia pilotuarekin, eta 2011n zabaldu eta hasi zen EAEko eremu orokorrean. Datu hauek ikusita, aurtien arrakasta izan duela esan daiteke:

2014.	URTEA
Eskaera-kop.:	18
Eskatutako jarduera-kop.:	18
Diruz lagundutako jarduera-kop.:	9
Diru-laguntzaren zenbatekoa:	160.000 €
Emandako zenbatekoa:	160.000 € (aginduan aurreikusitako zenbatekoaren % 100)
Uko egiteen kop.:	0

- Jarduera-motak:
- Anfibioen eta narrastien kontserbaziorako jarduerak: proiektu bat.
- Ingurumena eta paisaia kontserbatu, lehengoratu eta integratzeko jarduerak (galerialasoa eta baso autoktonoa, palaxuak sortzea, bilduma botanikoa, mendi publikoetan hesiak jartzea): 7 proiektu.
- Itsas-padurarekin muga egiten duten lurraz zaintzea: proiektu bat.

Diru-laguntzen programak harrera ona izan zuen, eta azpimarratu beharra dago aurkeztutako proiektuak bat zetozeala deialdiaren helburuarekin, diru-laguntzaren lehentasunezko lerroekin eta egindako jarduerekin.

1.- Izenburua

Natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako 2014. urteko diru-laguntzak.

2.- Araua

AGINDUA, 2014ko irailaren 16koa, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuarena; horren bidez, natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako diru-laguntzak arautu eta horiek emateko deialdia egiten da (EHAA, 193 zk., urriaren 10ekoa).

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Natura-ondarea kontserbatzeko ezaguera sustatzera bideratutako lerroaren barruan sartzen dira laguntza hauek, eta naturalismo zientifikoaren esparruan lan egiten duten erakunde eta elkarteei zuzenduta daude.

Deialdiak helburutzat du Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan natura-ondarea kontserbatzeko egiten diren azterlanak eta ikerketa aplikatuko lanak bultzatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Natura-ondarea babesteari buruzko ezaguera sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako 2014. urteko diru-laguntzak

Guztira 35 eskabide aurkeztu ziren, denak epe barruan. Eskabide horiek baloratzeko prozesua egin zen, eta teknikari espezializatuen iritzia bildu zen, 12.1 artikularekin bat etorriz.

Balorazioa egin ondoren, balorazioaren arabera diruz lagun daitezkeen kontzeptuengatik eman beharreko zenbatekoak zehaztu ziren, aurrekontu-dotazioa agortu arte. Hona hemen programaren aurrekontua:

- 2014ko aurrekontua: 160.000,00 €

Programa honen bidez bultzatzen da irabazi-asmorik gabeko elkarteek egiten duten lana EAeko elkarte-ehuna sendotzeko, eta horrela, ikerketa zientifikoak zabaltzen dira eta, era berean, Ingurumeneko Esparru Programatik eratorritako helburuetako bati erantzuna ematen zaio.

14 ikerketa-proiekturi eman zaie diru-laguntza: Arabako 6 proiekturi (proiektuen % 43), Bizkaiko 5 proiekturi (proiektuen % 36) eta Gipuzkoako 3 proiekturi (proiektuen % 21). Aurrekontuaren % 48 Arabara joan da, % 33 Bizkaira eta % 19 Gipuzkoara.

Urtebetekoa da ikerketa-proiektuak gauzatzeko epea. Baina kontuan hartuta agindua izapidetu behar dela, ezin da bermatu fauna eta floraren jarduera-aldi osoa (udaberria-uda-udazkena). Ikerketa-gai batzuek, ordea, jarduera-aldi oso bat edo bi behar dituzte landa-lanean hartutako datuak kontrastatzeko.